
BEIZAMAKO UNIBERTSITATEA


Beizamako herria

Beizama Urola-Kostako eskualdean dago kokatua eta eskualde bereko Azpeitia eta Errezil, Goierriko Beasain eta Toloserriko Bidegoian ditu mugakide. 16,8 km²-ko azalera du eta 167 biztanle bizi dira bertan. Udal-mugarteko punturik garaiena Illaun mendia da, 825,6 metrokoa hain zuzen ere, eta barnekoa Nuarben dago, 155 metrotan.



Beizamako harana

Inguru naturalari dagokionez, ezaugarri geologiko eta geomorfologiko bitxiak ditu. Estratigrafiak -hau da, azaleratzen diren materialak- eskualdean dauden sedimentu-talde nagusiak (serieak bezala ezagutzen direnak) azaltzen ditu, hala nola:


Wealdear konplexuko lurrak

Wealdear konplexuko material zaharrenak, gehienbat kolore iluneko tupez osatuak, baina baita kare-harrizko geruzez ere osatuak. Udalerriko Iparraldean daude kokatuta, Urraki mendian eta Oianzabal baserriko inguruetan.

Urgoniar konplexua, Euskal Herriko mendi tipikoak osatzen dituena: Ernio, Aralar, Aizkorri eta Gorbeiako gailurrak adibidez, eta Beizaman bi mendi esanguratsu: Kantera eta Illaun. Horietan kare-harri eta kare-haitz urgoniar tipikoak ikus daitezke; erliebe lerden eta lirainak sortzen dituzte eta fenomeno karstikoak ematen: dolinak edo lutoak, iturburuak, leizeak eta kobazuloak


Kantera, kare-haitz urgoniar tipikoa

Supraurgoniar konplexua, berriz, udalerriko hegoaldean aurki dezakegu. Kare-harriak, harearriak eta lutitak geruza dezimetrikoak osatzen dituzte serie honetan, teknikoki flysch bezala ezagutzen dena, alegia. Erliebeak aldapa handiko mendiak ematen ditu, tontor zabal eta leuneko mendiak dira ordea. Adibidez, Urkitzaundi eta Zumiztain baserrien inguruetan daudenak edo, hegoalderago, Korosagasti baserria zenaren inguruetan.


Tontor zabal eta leuneko mendixkak

Landaretzari dagokionez badira bi ezaugarri aintzat hartzeko modukoak. Alde batetik, antropizazioak edo giza jarduerak sortu duen paisaia, belardi atlantikoak izanik nagusi. Baserri-ingurua da eta bertan daude herriko etxerik gehientsuenak. Bestalde, eta batez ere hegoaldean, zuhaitz hostozabalez osatutako basoak aurkituko ditugu: gaztainadi, pagadi eta hariztiak. Artadia ere azaltzen da, kare-harri urgoniarrek lurzoru geruza txikia eman duten lekuetan bereziki, eta zehazki Agiñondo baserritik behera dauden eremuetan.


Leteko auzoa



Hostozabalez osatutako basoak

Gizakien aztarnak aspaldikoak dira Beizaman. Badira artzaintzan ziharduen antzinako gizartearen arrastoak, megalitoak alegia. Hilobiak ziren eta udalerrian lau daude. Trikumutegiko trikuharria oso erraz ikusten da, paraje horretan dagoen pistatik iparralderantz baitago kokatua, pistatik oso metro gutxitara. Illaungo tumulua, berriz, mendi honen eta Belakuren arteko lepoan dago, eskorta batean eta bidetik hegoaldera, erraz ikusteko moduan hau ere. Beste biak, hau da, Maramendiko trikuharriak, mendi magalean egonik ere ez dira hain erraz ikusten. Beste bosgarren bat izan zen, Basagainen, baina orain urte batzuk egindako pista prestatzeko lanetan betiko desagerrarazi zuten.


Illaungo tumulua

Historian sartu artean ez dugu Beizamari buruzko beste berririk. Kondaira zaharrek diotenez, erromatarren aurkako borrokak izan ziren Murumendiko harkaitzetan, baina honek ez du inongo fidagarritasun historikorik. Egia da ordea Beizama Saiazko Alkatetza Nagusiko partaide izan zela. Alkatetza honen lehen idatzizko testigantza 1027. urtekoa da, baina Beizama ez da ageri lehen idazki horretan. Alkatetza Nagusien alkatea hautatzeko aukera handirik. Egoera horrek sortu zituen haserreek 1563. urtean eman zuten emaitza; Felipe II.ak Saiazko Alkatetzako herriei euren alkatea aukeratzeko eskubidea eman zien, eta garai horretan lortu zuen Beizamak udal-nortasuna, Saiazko beste herriek egin zuten bezala Unibertsitatearen formula erabiliz, hau da: "etxe eta etxadien batasuna, interes amankomunak defendatzeko". Aipatzekoa da bai Gipuzkoako beste udaletan, bai Aragoiko erresuman -esaterako- ohizkoa zela formula hau. Hala eta guztiz ere, Saiazko Batasunaren bidez beste bost herriekin ere izan zituen loturak (Goiatz, Errezil, Bidania, Aia eta 1651n Albiztur).



Mendi kutsua duen kalea


Herriko plaza

Gaztelako erregeak izendatzen zuenez, bertako biztanleek ez zeukaten euren agintaria

Lotura horien artean aipatzekoa da Argisaingo Santa Marinako lur komunen erabilera. Hainbat gatazka eta istilu izan ziren herri mugakideen artean 1792. urtera arte. Urte hartan, eta beste konponbiderik ez zegoela ikusterakoan, udalerri bakoitzari bere lurrak mugatu zitzaizkion. Historia txiki honen adierazle bikainak ditugu Santa Marinan dauden herri-muga korapilatsuak, enklabeak eta antzekoak.



Santa Marina, garai bateko lur amankomunak




Arestian Beizaman 167 biztanle bizi direla esan dugu, baina interesgarria suerta daiteke biztanleria honen bilakaera historikoaren datu batzuen berri edukitzea, hala nola, 1860. urtean 755 biztanle zirela, 1900.ean 634, 1910.ean 598, 1970.ean 292, 1981.ean 171, eta 1990.ean 150. Beherakada izugarria jasan du benetan.


Udalerriko jarduera ekonomiko nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza dira, baina kontuan hartu behar da bertako biztanle askok beste herrietan lan egiten duela, eraikuntzan (biztanleria aktiboaren %14), industrian (%22) edo zerbitzuetan (%35). Baserriko etekin hutsetatik gaur egun ez da ia inor bizi, Gipuzkoako herrietan gertatzen den bezalaxe.


Borda edo saletxea


Jarduera berriak: abeltxe intentsiboak


Pinu gazteak


Herriaren iragan garrantzitsuak ondare historiko-artistiko aberatsa helarazi digu. Eraikuntzarik interesgarriena eta zaharrena San Pedro eliza da, XVI. mendekoa. Absidean dagoen kupula erdiesferikoaren gainean dorre karratu berri bat eraiki zuten 1928. urtean. Barnealdean, berriz, XIX. mendearen hasierako erretaula neoklasikoa da elementurik interesgarriena. Plaza txukun eta txiki bat osatzen dute Elizak eta Udaletxeak, eta bigarren eraikin honek bere garrantzia ere badu: eskola, taberna eta kartzela izan ditu bere hormen artean. 1673. urtean eraikitako Beizamako Unibertsitatearen egoitza honek, bere fatxadan puntu erdiko hiru arku eder erakusten ditu.



San Pedro eliza


Egungo errepidea

Bi eraikin hauetaz gain udalerri guztiak altxor txikiak eta ez hain txikiak gordetzen ditu. Bi ermita daude: San Lorentzo, ziurrenez herriko lehenengo parrokia izan zena, eta Soledadeko Andra Maria, errepidearen ertzean eta 1730eko kalbario baten ardatzean. Baserriak ugariak eta garrantzizkoak dira, besteak beste aipatzekoak dira Donperunea,



Kalbarioa



San Lorentzo



Igarango itxitura


Garagartza baserria



Txapartegiko garbilekua


Arretako inguruak


Herria


Beizamako harana

Etxenagusigoikoa eta Estrata Kalean, Oiarbide eta Arriaran Aginamendin, Igaran eta Beroaran Baztarkalealdean, Urdanpilletagoikoa eta Santageda (ermita eta benta izandakoa) Urdanpilletamendin, Txapartegi eta Etxetxo Santa Marinan, Galartza eta Lete Amenabarraldean eta azkenik Etxeberritxo, Gerbiztain eta Aitzalde (hau ermita izandakoa 1947. urtera arte) Illarraldean.


Garai bateko gatazkak



Alberdiko atea

Energia hidraulikoari lotutako hainbat elementuren aztarnak (errotak eta burdinolak zirenak) ere badira. Beizamako plazatik gertu Artotxaerrotaren aztarnak ikus daitezke gaur egun. 200 metro beherago Igaratxoerrota zegoen. Nuarben zutik dagoen Errota


Potzueta


Karobia

etxea, bere izenak dioen bezala, errota izan zen. Beste guztiak Ibaieder urtegiaren azpian geratu ziren: Bentaberri, Osinalde eta Beizamaerrota.



BEIZAMA OINEZ EZAGUTZEKO IBILALDIAK



Beizaman egin daitezkeen lau ibilbide deskribatzen dira. Bisitaria erraz hurbildu eta kokatzearren, udala zeharkatu eta Nuarbetik Toloserrira doan errepidearen ondoan hasten dira ibilbide guztiak. Honek ez du esan nahi aipatutako ibilbideak derrigorrez deskribatzen diren bezala egin behar direnik.


Beizama

Honetaz gain, esan beharra dago ibilbide hauek egiteko asmoa dutenek, Beizamako mendien gailurretatik (Gipuzkoa erdian dagoenez), bai Gipuzkoa, bai Bizkaia nahiz Nafarroako mendi garrantzitsuak ikusteko aukera izango dutela. Eta bidean zehar landaretza, arkeologi elementu, lehengo lanbide zaharren arrastoak (txondor, karobi), nahiz baserriak ikusi eta ezagutzeko parada izango dute, nork bere kabuz hala monitoreen laguntzaz.

Lau ibilbide hauek Gipuzkoako Mendizaleen Federakundeak homologatu ditu eta euren marka zuri-horiei jarraituz ez dago bidea galtzeko arriskurik.

1. Ibilbidea. Santageda - Maramendi - Santageda (PR-Gi 14)

Oharrak: mendi-bizikletaz egin daitekeen aldapa gutxiko ibilbidea da. Mendibidea oso egoera onean dago.

Interesgarritasuna: ibilbidearen zati handi batek baso hostozabalak zeharkatzen ditu, bertan, basoa ustiatzeko mota ezberdin batzuk ikus daitezke eta arretaz ibiliz gero txondor-plazaren arrastoak ere topa ditzakegu.

Maramendiko bidean

Horretaz gain, 3 megalito ikus ditzakegu: Trikumutegiko trikuharria, mendibidearen ondoan, eta Maramendi gailurretik hurbil, hego isurialdean dauden beste bi tumuluak.


Trikumutegiko trikuharria

Deskribapena: Santagedatik irten eta Arreta baserrirantz doan porlanezko bidea hartu. Pistari jarraitu lepoz lepo Elorrizabalgo lepora iritsi arte, non eskuinetara joko dugun, Maramendiko ipar-hegaletik. Korosagasti baserriaren hondakinen ondotik pasa eta gero (Beizamako krimena hemen gertatu zen) beherantz segi Trikumutegiko trikuharrira heldu arte. Bidea itzuli egiten da berehala, Maramendirantz, Domingo mugarria dagoen lepora iristeko. Mendiaren ekialdetik doan pistari jarraituz, berehala Elorrizabalgo lepora ailegatuko gara, etortzerakoan igaro dugun bideari heldu eta Santagedara itzultzeko.

2. ibilbidea. Urkitza - Maramendi (PR-Gi 15)

Oharrak: sei bat km-ko aldapa gutxiko ibilbidea dugu.


Interesgarritasuna: aukera didaktiko handiak eskaintzen dituen ibilbidea dugu; besteak beste baserri eta horiei lotutako belardiak, artadi eta hostozabaleko baso mistoez osatutako landare-formazio interesgarriak eta baita harrobia eta urtegia ere ikus ditzakegu ibilbidean zehar. Interesgarria da, halaber, ibilbidearen hainbat gunetatik ikus daitekeen paisaia ederrarengatik.


Ibaieder urtegia

Deskribapena. Ibilbide honetan hiru alde oso nabarmen bereiz daitezke. Lehena, Urkitzatik urtegira doana, Etxeberritxo eta Gerbiztaindik igaroz, beti ere aldapan behera. Bigarrena, urtegia inguratu eta harrobi bateraino doana, bide leuna. Hirugarrena, aldiz, Maramendiko ipar-hegaletik igoz mendia inguratu eta mendi-bideraino doana da (1. ibilbideko zatia da), aldapan gora zeharo.

3. Ibilbidea. Iturburu - Santa Ageda (PR Gi-16)

Interesgarritasuna: batez ere belardi eta baso-landaketetan zehar egiten den ibilbidea da; sastrakadiak jantzitako dolina-gune bat nabarmendu dezakegu daukan edertasunagatik. Honetaz gain Bidealde edo Elormizpillagasaletxe baserriaren inguruan karobia aurkituko dugu. San Lorentzo ermita ere bertan dago.


Illaungo itxiturak

Deskribapena: Beizamatik Tolosarako errepidearen ondoan dagoen Iturburu baserritik abiatuko gara. Bideari jarraituko diogu Elormizpillagasaletxera iritsi arte. PR-ko markak jarraituz Urdanpilletagoikoa baserrira iritsiko gara.

4. Ibilbidea. Elustondo - Agiñagamendi auzoa (PR-Gi 17)

Oharrak: ibilbide hau ia oso-osorik belardietatik eta zati labur batzuetan, baso-landaketen ondotik igarotzen da. Aldapa gogorretan zehar doa, eta baditu bi gune mendi-biderik gabekoak, hori dela eta ez da gomendatzen ibilbide hau ume txikiekin egitea.


Agiñagamendiko lurrak

Deskribapena: Elustondora Nuarbetik gora jarraitzen duen errepidetik ezkerretara doan desbideratzea hartuta iritsi gaitezke. Hortik abiatuta eta ia 3 km-ko ibilbidea egin ondoren, 3. ibilbidera-ko zati batera iritsiko gara. Behin puntu honetan, ezkerrerantz jarrai dezakegu errepidera heldu arte; eskuinerantz egin dezakegu bestela, 3. ibilbidea egin eta Santagedan amaitzeko.

BEIZAMAKO NATUR ESKOLA